

azpeitia



2008ko udazkena

X X I V I

e u s k a l

a n t z e r k i

t o p a k e t a k



agurra



Hona hemen Topaketak berriz. Topaketak hogeita seigarrenez. Geure buruari galdetzen diogu dagoeneko betiko Antzerki Topaketak direla esaterik ba ote den. Urte mordoak beteak dituzte eta aspaldikoak direnik ezin ukatu, baina betikoak direla onartuko bagenu, zahartzen, kamusten ari direla esaten ariko ginatke nolabait, eta ez gaude horretan etsitzeko. Betikoa eta antzerkia batera ezinak zaizkigu.

Euskal antzerki mostra honek hausnarketa aldi baten beharra duelakoan gaude. Topaketek zer berritua badutela iruditzen zaigu. Pentsa daiteke: Ondo dagoena zertan aldatu? Zertan jarri urteekin irabazitakoa arriskuan? Hain zuzen ere, Azpeitiko Antzerki Topaketak bizirik eta sasoiko daudela erakutsi nahiko genukeelako. Eta hori nola egiten den datorkigu burura derrepentean. Uste dugu, neurri batean, jatorrira joz, hasierako ausardia eta bizipoz hura berreskuratzen saiatuta aurki daitekeela urteak bete ahala gaztetzeko formula.

Zorionez, bizi garen mundu gatazkatsuen isla ere bada euskal antzerkia gaur. Eta Azpeitiak horixe erakutsi nahi du, euskaraz egiten den antzerkia zertan den: antzerki joera, lurralde, kolore eta aburu askotarikoak jendearen gogo-begien aurrean jartzea. Urterik urte topaketei eutsiz eta aldiro zerbait diferentea eskaintzeko gogoz. Maite dugu antzerkia, baina lizunduko ez bada hartu behar ditu arrisku batzuk. Euskaraz egindako antzerkiaren erreferentzia izateko abiatu ziren Topaketak. Eta horixe da gure erronka nagusia oraindik.

Burua galdu gabe, baina bere buruaren bila ari dira Azpeitiko Topaketak. Bitartean, ordea, gozatu egin nahi dugu antzerkiarekin. Ea elkar topatzen dugun ahalegin horretan!

LEIRE LAZKANO

Kultura Batzordeburua



a z a r o a

1, larunbata

GRONHOL METODOA - TXALO

21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

2, igandea

HANDITAN - GLU-GLU

18:00etan, Izarraitz pilotalekua

7, ostirala

PUTZUAK LEHORTZEN - AGERRE TEATROA

21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

8, larunbata

OHEAN - MASKARADA

21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

9, igandea

BREMENGO MUSIKARIAK - PARAISO TEATROA

18:00etan, Izarraitz pilotalekua

14, ostirala

I. AZOKA EGUNA

- **LODIKROKO** - ELIRALE KONPAINIA
10:00etan, Ikasberri Ikastetxean
- **ZOAZ EGAN ERRARI**
LE THEATRE DU RIVAGE
11:30ean, Betherram aretoa
- **INMUNDO; HESI-PUSKATZAILEA**
16:00etan, Karmelo Etxegarai Ikastola
- **HAULKI HUTSA** - LE PETTIT THEATRE DE PAIN
19:00etan, Gaztetxean
- **HNUY ILLA** - KUKAI TANTTAKA
21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

15, larunbata

ATE JOKA - TXALO

21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

16, igandea

GALTZAGORRIETO, INAXITO! - LANKU

18:00etan, Izarraitz pilotalekuan

17 18 19 20

**ESKOLA EDO GAZTETXOEI
ZUZENDURIKO ANTZERKIA**

11:00etan eta 15:30ean, Izarraitz pilotalekuan

**ANTZERKI AMATEURRARI
ZUZENDURIKO ASTEBURUA**

21, ostirala

GARRAXI IXILA

LANDA-BERRI ANTZERKI ESKOLA

21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

22, larunbata

HABEMUS ZIRKUS

AZPEITIKO EMAKUMEEN TAILERRA

21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

23, igandea

MAITE DUGULAKO - SATORRAK TALDEA

19:00etan, Izarraitz pilotalekuan

28, ostirala

EMAKUMEAK IZERAPEAN

TANTTAKA TEATROA

21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

29, larunbata

OMENALDIA - PILAR AIZPITARTE

13:00etan, udaletxean

30, igandea

NI NAIZ HECTOR, NI BAKARRIK - KANPINGAGS

19:00etan, Izarraitz pilotalekua

I, larunbata 21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

GRONHOL METODOA

TXALO



Multinazional batean, exekutibo-plaza bat betetzeko azken lau hautagaiak gela batean bildu dituzte, hautaketa-prozesuaren azken probak egin ditzaten. Lehen ikusian kostea egiten da sinistea lanpostuari berari dagozkion probak direnik, hain dira absurduak denak. Pertsonaiak jolasean dabilta, baita publikoa ere haiekin batera, egia eta gezurra bereizteko ahalegin antzuan. Hautagaiek gainditu behar dituzten proba guztiak, gezurra badirudi ere, langileak aukeratzeko teknika errealetan oinarrituak dira eta adituek idatzitako liburu burusuetatik atereak. Obra honek probak muturrera eraman eta hala agerian uzten dute beren baitan duten komikotasuna.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Egilea:** Jordi Galceran
- **Itzulpena:** Julia Marin
- **Zuzendaritza:** Carlos Zabala
- **Zuzendari laguntzailea:** Julia Marin
- **Aktoreak:** Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ramon Agirre, Itziar Itu o
- **Eszenografia:** Gabriel Carrascal
- **Eszenografi egilea:** Montenegro
- **Jantziak:** Ana Turrillas
- **Argiak:** Xavier Lozano
- **Teknikariak:** Albert Ruzafa, Andoni Mendizabal
- **Kartela:** Mikel Antero
- **Argazkiak:** Manix Diaz De Rada
- **ekoizle exekutiboa:** Yvonne Uriondo
- **ekoizle arduraduna:** Xabier Agirre
- **Salmenta:** ZTP
- **ekoizpena:** TXALO S.L

Helduen antzerki emanaldia



2, igandea 18:00etan, Izarraitz pilotalekuan

HANDITAN

GLU - GLU



Handitan zer izan nahi duzu? Galdera honi erantzunez sortzen da HANDITAN antzezlan. Jolas modura planteatuta dago neska-mutil eta familiari zuzenduriko antzerki lan hau. Humorea, musika, kantu, zoramen, eta jolasean oinarritua. Batez ere, neska mutilek hain gogoko duten jokoan: handitan zer izango direnaren jokoan, eta helduen mundua beren ikuspegitik jorratearen jokoan. Hasi eta, astronauta izatetik, suhiltzaile izatera pasatu ko dira. Mediku, ikertzailea, kontalari, edo zirkuko artista ere izan nahiko dute. Hiru aktore dira antzezle, bakoitza bere izaera zoro-zoroarekin. Hiru lagun hauek, hain ezberdinak izanik, badute lotura hautsi ezin bat: adiskide izatearena. Eta balore honetan oinarrituta, garatuko dute pailazo koloretsu zoro hauek beren portaera.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Zuzendaritza:** Aizpea Goenaga
- **Egilea:** Aizpea Goenaga
- **Aktoreak:** Libe Aranburu O ederra, Larraitz Garcia, Urtza Zuazo
- **Argiztapena:** Zigor Gorostiola
- **Eszenografia diseinua:** Edi Naud
- **Jantziak:** Arantza Gil, Eli Elizondo
- **Koreografia:** Ikerne Goikoetxea
- **Musika konposaketa:** Jonmari Beasain, Pello Gorrotxategi, Zigor Sagarna
- **Abestien hitzak:** Xabier Paia
- **Ahotsak estudioa:** BMC studios
- **Kartelaren diseinua:** Fernando Torrecilla
- **Argazkiak:** Ignacio P rez
- **Talde teknikoa:** Star Lan
- **ekoizpen Laguntzailea:** Maite Trillo
- **ekoizpen exekutiboa:** Mari Cruz Melgosa - To o Pinto
- **ekoizpena:** GLU GLU



7, ostirala 21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

PUTZUAK LEHORTZEN

AGERRE TEATROA



Putzuak lehortzen amodioz mintzo den ikuskizun bat da. Protagonistarentzat, Ramonarentzat alegia, amodioa eta bizitza gauza bera dira. Hau da, maitatzea, bizitza erabakitzen duzun unea da, eta une hartantxe berreskuratzen duzu askatasuna, hots zoriontasuna. Horregatik eskatzen dio Ramoni ausarta izateko eta gaztaroan izan zuten ametsa elkarrekin berreskuratzeke, sekulan ukorik ez egin beharreko ametsa hain zuzen ere...

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Zuzendaritza:** Garbi Losada
- **Banaketa:** Maite Agirre, Ander Lipus, In s Mtnez. De Iturrate, Joseba Usabiaga / Erik Probanza
- **Musika:** In s Mtnez. De Iturrate
- **Zuzendari Laguntzailea:** Ainhoa Pineda
- **Jantzien Diseinua:** In s Mtnez. De Iturrate
- **Banatzaila:** Agerre Teatroa
- **Eszenografiaren Diseinua:** In s Mtnez. De Iturrate
- **Eszenografia Egitea:** Eskenitek
- **Produkzioa:** Agerre Teatroa
- **Atrezzo:** Mi Cabeza Que Habla
- **Argien Diseinua:** Xabier Lozano
- **Argiak Eta Argazkia:** David Garcia
- **Jantziak Egitea:** Pili Jauregi

Helduen antzerki emanaldia



8, larunbata 21:30ean, Izarraitz pilotalekuan

OHEAN

MASKARADA



Urtebetetze batean elkar ezagutu eta handik ordu batzuetara, gizon baten eta emakume batek gela hartzen dute hotel merke batean sexu gau bat pasatzeko elkarrekin. Ez dakite ezer elkarren gainean, ezta bestearen izena ere, eta egun horren ostean ez dute berriro elkar ikusiko. Sexuaren ostean arrotz bi hauek ohartzten dira halako kimika bat sortu dela haien artean. Berbetan hasten dira eta, berez-berez, euren iragan eta intimitaterako atek zabaltzen dizkiote elkarri. Euren kontakizunetan oroitzapenak eta ametsak tartekatzen dira, gezurrak eta egiak, gurariak eta beldurrak, zintzotasuna eta traizioa, maitasuna eta gorrotoa. Gauean barrena nahastuz doa dena.

Izen bereko film txiletar bikainetik abiatuz, Maskaradak proposamen orijinal eta Ausarta eskaintzen digu, Unai Elorriagak egokitu eta euskaratua eta Aitor Beltranek eta Matxalen Pedrok antzeztua, Carlos Panaren zuzendaritzapean. Mat as Biz -ren filmean oinarritua.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Jatorrizko gidioia:** Julio Rojas
- **Egokitzapena eta itzulpena:** Unai Elorriaga
- **Musika:** Rafa Rueda
- **Eszenografia:** Gorka Jimenez
- **Argiak:** Kandela iluminaci n
- **Argi teknikaria:** Andoni Mendizabal
- **Argazkiak:** Josu Rekalde
- **Banaketa:** Marian Arruti eta To o Pinto
- **ekoizle eragilea:** Gorka M nguez
- **ekoizlea:** Maskarada
- **Antzezleak:** Aitor Beltr n eta Matxalen de Pedro
- **Zuzendaria:** Carlos Panera



BREMENGO MUSIKARIAK

PARAISO TEATROA



Grimm Anaien alegia ezagunetik abiatuz, Paraiso Antzerki Taldeak bertsio berezi bat egin du, non errimadun testua eta musika batzen diren, giro bitalista eta poetikoa sortuz. Lau aktore musikaririk era komiko eta musikalean beren zoritxarrak kontatzen dituzte: astoa, txakurra, katua eta oilarra dira. Guztiak bizitza ikaragarri baten sufrimenduz kezkatzen dira: bakardadea eta kolpeak, gosea, kateak, ibilaldi luzeak eta labean amaitzeko beldurra. Zalantzazko ikuspegi horren aurrean amets bat nagusitzen da: Bremen. Eta horrela hasten da abentura.

Ikuskizuna bizitzeko alaitasunari, laguntasunaren balioari, bidearen zailtasunei aurre egiteko ausardiari eta helmugara elkarrekin iristeko itxaropenari egindako kantua da. Helburua ez da soilik geografikoa, izan ere Bremen edozein lekutan egon daiteke, musika nota bakoitzaren bihotzean edo musika nota bat jotzen den edozein zokotan...


Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Interpreteak:** Eriz Alberdi, David Errasti, Leire Olanan eta Inazio Tolosa
- **Diseinua:** Marcelo Chiarenza
- **Gauzatzea:** Carlos P. Donado eta Ana Fernandez
- **Jantziak:** Pilar Lopez eta Taller De Bego a
- **Maskarak eta Atrezzoak:** Ana Fernandez eta Lucia Baldini Argiztapena Javier Garcia
- **Argazkiak:** Quintas Fotografos
- **Musika Laguntzak:** Ana Isabel Bravo (Saxofoia), Ricardo Llanos (Akordeoa), Olaya Montoya (Perkusioa), Javier Anto ana (Gitarra), Jes s Urrutia (Bonbardinoa), Javi Flores (Tronpeta), Nora Chena eta Carmen Qui ones (Ahotsak).
- **Grabazio-estudioa:** El Canton De La Soledad
- **Konposizio Musikala:** Marco Versari
- **Musika Zuzendaritza:** Paco Ibez Iribarria
- **Euskarazko Bertsioa:** Xabi Paya
- **Egileak:** Claudio Casadio eta Giampiero Pizzol
- **Zorkuntza:** Claudio Casadio
- **Zuzendaritza:** Tom s Fdez. Alonso

10:00etan, Ikasberri Ikastetxean

LODIKROKO

ELIRALE KONPAINIA



Emanaldi honetan olerki, amets eta gorputz uena izanen da Amaia Hennebutte-Millard-ek idatzi duen 'Lodikroko' liburuaren inguruan. Konpakto-liburu hau Ikas zentru pedagogikoak argitaratu du.

Intimista den espazio batean haurtzaroaren munduko lemak zeharkatuz dena sonoritate, erritmo eta IRRI Joao haur laguntzaileen plazerrarentzat.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Dantzaria:** C cilia Thomas
- **Antzerkilaria:** Joxelu Berasategi
- **Musikaria:** I sus Aured
- **Taularatze eta koreografia:** Amaia Hennebutte-Millar-Pantxika Telleria
- **Akzesorio sortzailea:** Annie Onchalo
- **Jantzi sortzailea:** Karine Prins



11:30etan, Betherram aretoan

ZOAZ EGAN ERRARI

LE THEATRE DU RIVAGE



Haur ameslaria, edozerekin lilurutzen dena, Mateok biziki gustukoa du istorioak asmatzea. Aspertzen denaldi oro, bere baitan irudikatzen duen munduan bilatzen du babesa. Horrela, Babu txakurrak lagunduta, bere izpiritu jakinmin eta errariak eramango du, zein eta Antonio Vivaldi ezagutzera! Lau Ur taroen erreinuan, musika, goxotasuna eta irrealtasuna nahastuko dira. Musika-notak jauzi egiten dira, musika-tresnak mintzo dira, elkarren arteko solasean, txotxongiloek ikus-teatroa sortzen dute, oniriko, Namur eta hunkigarria.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Zuzendaria:** Pascale Daniel-Lacombe
- **Marionetak:** Annie Onchalo
- **Eszenografia:** Pascale Daniel-Lacombe eta Franck Girodo
- **Argiak:** Franck Girodo
- **Antzezleak:** Annie Onchalo, Delphine Bastard, Baptiste Elicagaray, Javier Barandiaran eta Agnès Francois.
- **Produktorea:** Antonin Vullin eta Theatre du Rivage



16:00etan, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai

INMUNDO; HESI-PUSKATZAILEA

LAENANANARANJA ANTZERKI TALDEA



Mister Majik zirkuko nagusia da eta Inmundo naturaren gertakari bitxi bat. Lehen, bigarrenaren jabea bihurtuko da txanpon gutxi batzuren truke eta berari esker gehiago aberastea lortuko du.

Baina Inmundo ez da zirkuari geldituko, abentura berrien bila baitabil. Herri Trebe-ra iristea lortuko du azkenean, iraunkorren kanpamentura, mundu arruntaren beste aurpegia. Han, bertako biztanleekin batera Errealitateen Zirkuaren baitan murgilduko da.


Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Antzezleak/ Manipulatzailerak:** Sandra
- **Fdez. Aguirre, Itziar Fragua, Iker Garcia**
- **Egilea eta Koordinazioa:** Iker Garcia
- **Koordinazio laguntzailea:** Alex Gerediaga
- **Panpinen sorketa eta eskenografia:** LaEnanaNaranja y LaRessistens
- **Soinu diseinua:** Ibon Aguirre
- **Zuzeneko soinua:** Ibon Aguirre
- **Argiztapena:** Nabar Zarraga
- **ekoizpena:** LaRessistens
- **Euskarazko itzulpena eta moldaketa:** Maria Urzelai

19:00etan, Gaztetxean

AULKI HUTSA

LE PETIT THEATRE DE PAIN



Ikuskizun honek, Joseba Sarrionandiaren idazki zenbaiten josteta du oinarri. Herbestetik itzuli ezin duen gizon batek, bere itzulera amestu du. Herriko ostatuan egunkaria irakurtzen ari dela, tragoa eskaintzen digu. Eta beste bat, bakar tasunari aurre egiteko aitzakiarekin. Eta azkena biderako.

Denboraren ispiluari begira, distantziak markaturik, minak eta desirak berpizten zaizkio, umore beltza eta poesia lagun dituela. Musikari batek dantzari bihurtzen du edalearen egonezina, bere iritzi eta asmoek kantu debekatuen hitzak diruditela.

Fitxa artistikoa eta teknikoa


- **Idazlea:** Joseba Sarrionandia
- **Joko eramailea:** Ander Lipus
- **Antzerkilaria:** Manex Fuchs
- **Musika akomodatzailea:** Jean Christian Irigoyen
- **Musikaria:** Battitt Elissalde
- **Argiztapena:** Josep Duhau.



21:30etan, Izarraitz pilotalekuan

HNUY ILLA

KUKAI TANTTAKA



Hnuy illa poesian oinarritutako dantza ikuskizuna da. Joseba Sarrionandiaren Huny illa nyha majah yahoo (Ondo zaindu beti, Yahoo maitea) liburuan bildutako poemetan oinarritutakoa, hain justu.

Poema horietan inspiratuta, Mireia Gabilondok ibilbide zirraragarria sortu du poetaren gai nagusietan barrena: maitasuna, erotismoa, kartzela, erbesteak, ametsak...

Poema horiei dantzarako pausoak ipini dizkie Jon Mayak eta I aki Salvadorrek doinuak; David Bernues ikus-entzunezko errealizadoreak, berriz, irudi ederrak.


Hala, poesia, dantza, irudiak eta musika elkarrekin izango dira agertokian.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Gidoia eta zuzendaritza:** Mireia Gabilondo
- **Koreografia:** Jon Maya
- **Musika:** I aki Salvador
- **Poesía:** Joseba Sarrionandia
- **Eszenografia:** Fernando Bernues
- **Dantzariak:** Jon Maya, Alain Maya, Enero Gil, Ibon Huarte, Urko Mitxelena, Vanesa Casta o eta Nerea Vesga

ATE JOKA

TXALO



Bikoteen arteko elkarbizitza ez da sekula erraza izan.

Eta zure lagun onenarekin?

Nolakoa da etxean zure laguna?

ATE JOKA datorren laguna?

Hiru lagunek eskeintzen diguten komedia arin eta entretenigarria da ATE JOKA.

Hiru esan dut? Ala lau dira?

Dakiguna: beraiek gero eta okerrago ibili guk hobeto pasako dugula.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Bertsioaren Egilea:** Ritxi Lizartza
- **Aktoreak:** Iker Galartza, Joseba Usabiaga, Sara Cozar
- **Esenografiaren diseinua eta egilea:** Ibai Maritxalar
- **Jantziak eta jantziak:** Ibai Maritxalar
- **Atrezzoak:** Meno
- **Argiztapena:** Andoni Mendizabal
- **Teknikoak:** Andoni Mendizabal, Iaki Zaballa
- **Argazkiak:** Manex Díaz de Rada
- **Kartela:** Monica Sag es
- **Ekoizpen exekutiboa:** Ivonne Uriondo
- **Ekoizpena eta banaketa:** Ztp[®] Banaketak
- **Zuzendaria:** Bego a Bilbao



16, igandea 18:00etan, Izarraitz pilotalekuan

GALTZAGORRIE TO, INAXITO!

LANKU



Inaxito estu dabil. Mundu guztiak arazoak dituela jabetu da. Margarita bere lagun-minak orraza galdu du eta itxusi ikusten du bere burua. Herrian ura falta dela esanez entzun du bandolaria eta kobazulo batean hil nahi eta ezin duen agure batekin egin du topo. Aitona etsituak emango dio mitologia ezagutzeko bide. Antzerkian zehar pertsonaia mitologikoak ezagutzen joango da: Basajauna, lamiak, galtzagorriak... eta harreman berri hauen baitan garatuko da antzezlan.

Misterioz eta umorez beterik dator Inaxitoren hirugarren antzeppen hau. Euskal mitologiako pertsonaia eta lurraldeak ezagutuko ditu Inaxitok jolasean, eta bertsoek zipriztinduko dute antzerkiaren haria. Euskal mitologiaren mundu magikoarekin gozatzeko aukera izango da.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- Aktoreak: Ibai Esoain, Xabier Sukia, Gorka Tolosa



21, ostirala 21:30etan, Izarraitz pilotalekuan

GARRAXI IXILA

LANDA - BERRI ANTZERKI ESKOLA



1936ko Gerra gertatutakoen inguruko emanaldia.

Gerra bat ez du inork irabazten. Denek galtzen dute. Baina ofizialki galtzaile izan zirenen ikuspegitik kontatua dago.

Andoainen Oroituz (memoria historikoaren aldeko taldeak) egindako lanaren ondoren Xabier Lasak idatzitako (Oroimenean lokartutako ahotsa) liburuan oinarritutako antzezlanada. Horretaz aparte, antzezleen familietan gertatutako pasadizuak ere kontatzen dira. Testuaren moldaketak ere antzezle eta zuzendariaren artean egin dira.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Zuzendaria:** Ioxerra Fachado
- **Aktoreak:** Landaberri Antzerki Eskola (Helduen taldea): Kontxu Yarza, Junkal Perez, Dontze Iradi, Ane Huizi, Lorea Yeregi, Anabel Heleno, Jexus Mari Presa, Estitxu Garmendia, Mailu Arruti, Mirentxu Egizabal.
- **Atrezzoak:** Landaberri Antzerki Eskola

Helduen antzerki emanaldia



HABEMOS ZIRKUS

AZPEITIKO EMAKUMEEN TAILERRA



Krisialdian gaudela diote Tiriti zirkuko kideek aspalditik bizi dute krisia, krisi profesional eta pertsonala. Sos bakar bat bera ere ez daukate zirkua aurrera atera ahal izateko, eta ilusioa, guztiek zeukaten zirkurako ilusioa, erabat galdu dute.

Zirkuko nagusiak, Florak, bere gurasoengandik jasotako enpresari azken aukera bat ematea erabaki du. Gainontzeko kideak, nagusiak hartutako erabakiarekin gustura ez eta, Tiriti zirkuaren azken emanaldiaren aurrean ote gaude ba?

Taldearen indarra desegin eta banakakoari lekukoa pasatzean, familiaren kontzeptua ezbaian jarri da.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Aktoreak:** (Karmi a):Ane Arenas, (Benita):Aizpea Ibarbia, (Petra): Amaia Garmendia, (Teresa):Idoia Altuna, (Flora): Miren Albero, (Nancy): M. Karmen Borda, (KRIS): Garazi Urbina, (Mora): Lurdes Mendizabal, (Zozo): M. Pilar Lizarburu, (Gozo): R. Mari Alberdi, (Valentina):Gurutze Eizmendi
- **Zirikatzailea:** Alaitz Olaizola
- **Laguntzaileak:** Arroxa Borda, Ane Mendinueta, Azpeitiko udaleko parekidetasun saila
- **Eszenografia:** Emakumeon antzerki tailerra, Lakrikun antzerki taldea

MAITE DUGULAKO

SATORRAK TALDEA



Ekintza iragaten da etorkizun hurbilean (2050ean), Amerikako Estatu Batuetako Presidentzako aterbe atomikoan. Klima aldaketak eragin izigarria badu planetaren bizian. Alabaina, laster ezinezkoa izanen da bizia Lurrean. Zer egin? Planetako agintari goienek plan sekretu bat daukate, abian ezartzeko dena ordu batzuk barne. Denak ez dira ados. Pertsonaia indartsuren arteko borroka izigarri bat hasten da. Gai moderno eta gogor bat, umorismo kutsu batekin nahasia. Bizitzan bezala azkenean.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Aktoreak:** (John, Lehendakariaren Senarra) Xan Errotabehere, (Tseu-hi, Txinako anbaxadorea) Koro Lopez, (Helen, Estatu Batuetako Lehendakaria) Mari-ber Arrabit, (Georges, Estatu Maior Buru Jenerala) Xalbat Daguerressar, (Nicole, Defentsa Ministroa) Maia de Munoa, (Shirley, Jeneralaren Ohekiea) Pantxika Martin-Lesgourgues, (Susana, Sehia, "Eta Esther, Judithen Lagunmina) A a-Mari Challet-Fagois, (Judith": Helen Eta Johnen Alaba) Camille Bonnet
- **Testua eta oholtoa zuzendaritza :** G rard Bagardie.
- **Argi eta soinu teknikariak :** Andde Carrere Ala Philippe Fleury
- **Afixako Marrazkia :** Asisko Urmeneta



28, ostirala 21:30etan, Izarraitz pilotalekuan

EMAKUMEAK IZERAPEAN

TANTTAKA



Sexuaz mintzatzeko ikuskizuna da hau; emakumeen sexu bizitzaz hitz egiteko aitzakia. Emakumeek ohean dituzten irrika, fantasia, frustrazio, sekretu eta desirak ditu mintzagai. Agertoki gainean bost emakumezko, bost adin eta bost gizarte maila ordezkatzeko dituzte. Gizonezko bat ere izango da, hainbat paper jokatu dituen: aingeru guardakoa, konpainia goxoa, terapeuta, laguna, iritsi berri bat, oroitzapen bat, aita, suhiltzaileen burua. Maitasunak, fantasiak edo errealitatekin urrunekoa badirudi ere, sexu senean dituzte sustraiak". (Arthur Schopenhauer)

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Egileak:** Lurdes Ba uelos/Mireia Gabilondo
- **Euskarazko itzulpena:** Ritxi Lizartza
- **Argiztapena:** Xabier Lozano
- **Jantziak:** Ana Turrillas
- **Eszenografia:** Fernando Bernu s/Edi Naudo
- **Ikusentzunezko muntaia:** David Bernu s
- **Banaketa:** Teresa Calo, Sara C zar, Aitziber Garmendia, Beatriz Mart nez de Anto ana, Pilar Rodr guez, Asier Hern ndez
- **Zuzendaritza:** Mireia Gabilondo
- **Teknikoak:** Tarima log stica de espect culos
- **Eszenografiaren egilea:** Edi Naudo/Eskenitek
- **Zuzendari laguntzailea:** Belen Cruz
- **Ekoizpen laguna:** Lucía Ocariz
- **Koordinazio teknikoa:** Edi Naudo
- **Argazkiak:** Conny Beyreuther
- **Diseinu grafikoa:** Cristina Fern ndez
- **Administrazioa:** Maite Gorrotxategi, Miren Oiarzabal
- **Ekoizpen exekutiboa:** Koro Etxeberria
- **Ekoizpena:** Tanttaka Teatroa
- **Banaketa:** Julio Perugorria



NI NAIZ HECTOR, NI BAKARRIK

KANPINGAS



Komedia honetako protagonista Hector da. Hectorrek arazo larria du: orain urte batzuk ahotsak entzuten hasi zen bere baitan, gero ahotsok gorpuzten joan ziren eta egun hezur-haragizko bi NI ikusten ditu. Arazoari aurre egiteko, psikologoarengana joatea erabaki du. Halere, ez du edozein psikologo aukeratu, gaztaroan ezagutu zuen neska batengana joan da, Estirengana.

Esti hasiberria da psikologo lanetan, Hector bere lehen pazientea da. Horrenbestez, ez da erraza jakiten nork behar duen laguntza handiagoa, Hectorrek ala Estik berak. Dena den, Estik bere zalantza eta beldurrak gainditu eta kasuari aurre egitea erabaki du. Kasuak baina, Estiren amaren jakinmina piztu du. Estiren ama Carla da eta psikiatrian doktorea da, ospe handikoa. Eta berak tratatu nahiko du Hector bere ospea puzteko.

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Zuzendaria:** Jokin Oregi
- **Egilea:** Jokin Oregi
- **Aktoreak:** Teresa Calo, Aitor Beltran, Nagore Aranburu, Asier Zinkunegi, I aki Urrutia
- **Eszenografia diseinua:** Jose Ibarrola
- **Argiak:** Xabier Lozano
- **Jantziak:** Maida Zabala
- **Musika:** Santiago Ramos
- **Eszenografiaren egilea:** Meno Martin
- **Produkzio exekutiboa:** Yurre Ugarte
- **Produkzioa:** Kanpingags SL
- **Banaketa:** ZTP

Topaketean

Txalo Saria 08

28, ostirala | 13:00etan, udaletxean



Pilar Aizpitarte Arozena

Lehen urratsak antzezle bezala 1961-1962 urte bitartean egin zuen Agustin Zubikarainen Jaunaren Bideetan antzerkiarekin.

Antxieta Antzerki Taldeko kide izandakoa, Imanol Eliasen zuzendaritzapean hainbat obratan parte hartu zuen. Antxieta Antzerki Taldea 1981ean sortu zen eta 2003an desegin zen.

Gaur egunera arte antzezle bezala antzerki munduan eta baita ere ETBko Goenkale sailean lan ugari egin duen aktorea.

Honela gogoratzen du Pilar Aizpitartek antzerki munduan sartu zenekoa: Ni oso kantu zalea izan naiz eta Azpeitian antzeztu behar zen Pasioa-n kantatzera joan nintzen hasieran. Ez dakit Enrike Zurutuzak, zuzendariak, zer bilatu izango zidan baina antzezle lanerako aukeratu ninduen. Paper txiki bat bazegoela eta horretarako apartatu ninduen, eta kantua laga egin behar izan nuen. Handik aurrera gustatu egin zitzaidan. Gero Imanol Eliasek sortu zuen antzerki talde bat eta hotsegin zidan. Hala segitu nuen gero antzerkiari loturik (*Baite* aldizkariaren 10. zenbakia, 2003 urtea).



17,
astelehena

Izarraitz pilotalekuan

Antzezlan: Lan baten bila, Magia Saioa, Bi Asto
Ordua: 11:00etan
Ikastetxea: Beasaingo Ikastola (Gipuzkoa)
Antzezleen maila: LH 3-6. maila bitartekoak
Ikusleak: LH 3-6. maila bitartekoak

Antzezlan: Antzerkia, kantagintza
Ordua: 15:30etan
Taldea: Erandioko Jado Compasion (Bizkaia)
Antzezleen maila: DBH 3-4. maila bitartekoak
Ikusleak: DBH 1-4. maila bitartekoak



18,
asteartea

Antzezlan: Txunari-txunari
Ordua: 11:00etan
Ikastetxea: Gorpegiko Gorbeia Eskola (Araba)
Antzezleen maila: LH 3-4 eta 5. maila bitartekoak
Ikusleak: LH 2-5. maila bitartekoak

Antzezlan: Zergaitik ez?, GU GU(a)RAS(z) OAK!
Ordua: 15:30etan
Ikastetxea: Donostiako Zurriola Ikastola Gipuzkoa
Antzezleen maila: DBH 3. maila
Ikusleak: DBH 1-3. maila bitartekoak



19,
asteazkena

Antzezlan: Patxiku Marokora doa
Ordua: 11:00etan
Ikastetxea: Abetxuko Ikastola (Gasteiz)
Antzezleen maila: LH 5-6. maila bitartekoak
Ikusleak: LH 1-6. maila bitartekoak

Antzezlan: Txin-Txin, Txin-Txin diruaren hotsa
Ordua: 15:30etan
Ikastetxea: Zestoako Aizarna LHI
Antzezleen maila: LH 1-6. maila bitartekoak
Ikusleak: LH 3-4. maila bitartekoak



20,
osteguna

Antzezlan: A30 Formula, Ar taldegain
Ordua: 11:00etan
Ikastetxea: Ikasberri Azpeitiko Ikastola
Antzezleen maila: DBH 3, DBH 4
Ikusleak: DBH 1-4. maila bitartekoak





Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



kutxa